

IRRATIAREN FUNTZIOAK



Reuters Radio, news transmission, 85 Fleet Street, London
1958-60

- *Funtzio Politikoa*

Irratiak izan duen botere propagandistikoa oso handia izan da betidanik, hau oso argi ikusi ahal izan zen II Mundu Gerra eman zenean.

Garai horretan Gobernu Sobietarra alde batetik eta Hitler bestetik, irratia erabili zuten arma político gogor moduan.

Gobernu Sobietarretik hasita, honek, "Radio Moscú"-ren sorreratik (1922) erbili izan zuen irratia Marxismoaren gorespena egiteko, bere alde ahalik eta jende gehiago jartzeko asmoz.

Hala ere propaganda politikoa hizki larriz esanda, Hitlerren Nacional Sozialismorarte ez zela eman esan dezakegu.

Hitlerrek propaganda egin ezezik herria "heitzeko" erabiltzen zuen irratia bere esanetan .

Aipatu beharrik ere ez dago zelan bere propaganda zabaltzen zuen bitartean bere kontra agertzen zen edozer zentzuratu egiten zuela, hori zela eta errezago egiten zitzaion ,jendea bere alde jartzea , azaldu ahal zen boz bakarra berea baitzen.

Lehenengo momentu batean Alemaniako Irrati saioak bere CONTENIDO DIBULGATIBOAK nabarmendu ziren batez ere "Reich"-aren ideologia eta nahiak azaltzeagatik hain zuzen ere. Bere mezua alemaniar "onen " sentimenduetara zegoen zuzenduta, batez ere, hori dela eta, euren estrategia etengabe errepikatzearena zen .

Aldi berean, Zeesen-ren iragar zentrua zabaldu zuten PARALELAMENTE .Euren nahia, alemaniarrek ziren, baina kanpoan bizi ziren gutxiengoetara zuzentzea zen. Alemanieraz aireratzen zen. Hauek Hitlerren sarraskia salatu nahi zuten . Propaganda politiko-militarraren bigarren fasea alemaniar ejerzitoaren TRIUNFOAREKIN bat egin zuen, II Mundu Gerraren baitan. Grai honetara dagozkio "Frenteren Dokumentuak", zuten egitura perfektuarekin batera soinua, eta zuzeneko ahotsak batzen zitzaizkion.

Irrati honen hirugarren etapa, Aliatuen garaipena hurbil zegoeneko da. Hala era irrati emandegi honek bere ohiko "garaipen" doinuarekin jarraitu zuen. Hau gerraren norabidea aldatuko zuelakoan.

Beste alde batetik italiar faxismoa bere irrati modelu propioa eraiki zuen. 1930-1940 urteetan zehar Mussolinik sortu zuen "Ente Italiano per la Audizioni Radiofoniche" delakoa, bere helburua faxismoaren lerroak zabaltzea zelarik.

Kontrako bandoan, BBC irrati britanikoa dugu. Irrati emandegi honek, Winston Churchill- en diskurtsoak plazaratzen zituen. Estatu Batuetan, Roosevelt presidentea, gertatu behar ziren arazo mundialei buruz prestatzen joango zen hiritarrak bere hizketaldiekin. Berak erabiltzen zuen doinua oso lasaia zen, baina japoniarrak baretasun guztiekin apurtu eta Estatu Batuak gerran sartu behar izan zirenean, Washingto "La voz de America" irrati emandegia sortu behar izan zuen.

Beste alde batetik aipatu beharra dago, zelan erabili izan diren kirolak urteetan zehar, hainbat diktadura erreximen, arazo nagusietatik,... jendea DISTRAITZEKO. Inork ezer egin ezin zezakeelarik .